

**Daoismoa (Taoismoa)**

Bi aldetarako da daoismoa: bata, filofsikoa-mistikoa; magiko-erlijiozkoa, bestea. Zenbait aldetatik elkarren kontrakoak izan ziren daoismo filosofikoa eta \*konfuzianismoa; baina elkarren kontrapisuarena eginez eta elkarri eraginez, bien artean bideratu zuten txinatar pentsamenduaren garapena.

Eskola daoistako filosoforik ezagunenak Laozi (Lao Tzu, Laotse) Konfuzioren garaikidea, eta Zhuangzi (Chuang Tzu) (K.o. IV-III) izan ziren. Oinarritzko liburua Dao De King (Bertute-bidearen liburua) da, Laozi-ri egotzen zaiona.

Filosofia daoistaren kontzeptu giltzarrak azalduko ditugu orain. Energia kosmikoaren bi poloak yang (positiboa) eta yin (negatiboa) dira; elkarren kontrakoak diren gauza guztietan gertatzen da bien kontrakotasuna: arra eta emea, finkoa eta lazoa, sendoa eta ahula, \*argia eta \*ilunpea, igotzen dena eta erortzen dena, \*Zerua eta \*Lurra kontrakoetan alegia. Bi printzipio horien arteko oreka egonkorra lortzean datza ongi bizitzearen trebetasuna, batak bestea gabe ez bait dauka izaterik. Sintesi bila ari den \*dualismoa da hori. Mundiukuskera organikoa eta harremanezkoa du daoismoak, yang eta yin printzipioek elkarri energiak sorteraizten bait dizkiote.

Dao (Tao) da kontzeptu oinarritzkoa; izadiari begira bakarrik burura daiteke, horri buruz aldi berean haraindikoa eta honaindikoa, aurretikoa eta garaikidea, ezberdina eta berdina bait da, eta, horregatik berari buruz gauza antitetikoak esaten dira. Aseitatea bere-berea du Dao-k, baina izaki kontingente guztien oinarria da aseitate hori: Dao-ren sormena ez da egileren baten egite personaltzat ulertzen; bera ez da \*izadiatz aparteko legegileren bat ere. Dao-k ezarritako ordena ez da inolako \*legea, eta bai izateko modua.

Izadiaren ibilera bizia da Dao konkretua. Jakintsuak ez du ibilera hori behartu behar, eta bai horko partaide izaten saiatu beti; "Tartean ez jartzearen" printzipioa edo abiaburua dakar horrek, hau da wuwei edo ez-iharduna; daoismoaren arabera bortxaeza, ez behartzea edo artifizio-gabezia adierazten du printzipio horrek. Ez da edozein neke edo ahalegin kentze hutsa; korrontearen arabera igeri egitea edo, untzi-bela haizearen aldera zuzentzea edo da; borroka irabazteko modura norbera moldatzea da, judoan eta aikidoan egiten den legez, zeintzuetan arerioa garaitzeko berorren bulkadaren indarrak baliatzen bait da borrokalaria.

Gobernu onaren lehen araua wuwei da, daoismoaren arabera; hau da, ez-iharduna edo

ahal den gutxien eta inor behartu gabe ihardutea. Izadi jakintsua berez hobeto taxutuko omen da, gure esku-sartze desbideratuen bidez baino. Ez-iharduna printzipioaren kontrakoena gerra da.

Biziera soilaren, landako bizieraren, gutizia gehiegirik gabearen, aldekoa da daoismoa; guk aurrerapena deitzen dugun horren kontrako errezelua nabarmena du. Balia bide artifizial eta behartuez beren buruak lantzeko eta mundua hobetzeko ahaleginetan dabiltzanek buruhausteak sortu besterik ez dute egiten. De-ren bidez lanegiten du Dao-k; honen izaera paradoxikoaren partaide da, beraz, hura ere. \*Bertutea hitzera itzuli ohi da de, baina ez du zuzentasun morala esan nahi, eta bai kemen edo energia naturala. Esan daiteke, esan, berezko sentimenduetan oinarrituriko bertute naturala dela de; eta ez gainetik ezarritako arauen bidetik datorren konfuziar bertute artifiziala.

Ikuspegi kosmikotik begiraturaz, Dao-ren, eta beronengandik eta beronengan jarriaten diren izakien bitartekoa da de. Dao-de bikotea da, daoismoak bata-anitza, finitua-infinitua, \*betiraundea-denbora antonomiaren arazo filosofikoari ematen dion irtenbidea.

Dao, edo izaki berezkoa, eta horren bertutea, berezotasuna edo de, nabarmentzeko, \*konfuzianismoaren arerio filosofiko bihurtu zuen daoismoa; era berean, daoismo magiko-erlijiozkoaren aurrez aurre jarri zuen, hori, \*budismoaren eta bestelako ikasbide hinduen eraginez, arnasaren kontrolaz, \*yoga sexualaz, alkimiaz, medikuntzaz baliatzen bait zen \*hilezkortasuna lortzeko. Daoismoaren adar hori erakunde gisa organizatu zen eta \*monastegiak eraiki zituen. Baina ez Laozi-ri ez Zhuangzi-ri ez zitzaien axola artifizialki bilaturiko hilezkortasun hori. Zhuangzi-k ez zituen aintzakotzat hartzen horrelako ariketak eta "artifizialki sortezakitako dao-tzat" zeuzkan.

Ik. Dao; Arnasa kontrolatua; Kosmosa.

José Pérez Remón

Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

**Darbitarrak**

Ik. Plymouth-eko haurrideak.

**Darxana**

Sanskritoz, eritzia edo ikuspuntua adierazten du. Indiako filosofi sistema edo eskolei deitzen zaie horrela.

Sei eskola tradizional nagusi eta ortodoxo bereizi ohi dituzte: \*Samkhya, \*Yoga, Niaya, Vaixesika, \*Mimansa eta \*Vedanta; eta hiru heterodoxo: \*Budismoa, \*Jainismoa eta \*Txarvaka.